

TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA (BMIT) 2003ko hirugarren hiruhilekoa

Euskal AEko txikizkako sektoreko salmentak %4,4 hazi ziren 2003ko hirugarren hiruhilekoan

Araban %6,0 hazi ziren, batez bestekoaren gainerik, Bizkaian (%4,4) batz bestekoaren pareko eta Gipuzkoan (%3,7), ostera, neurritsuago.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean, 2003ko hirugarren hiruhilekoan, salmentak %4,4 igo dira, kopuru nominaletan, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean, Eustatek emandako datuen arabera. Hazkunde nominal hori, kopuru errealetan, %2,7ko garapen positiboa da.

URTE ARTEKO HAZKUNDE TASA ERREALAK. EUSKAL AE

URTEA	HIRUHILEKOA	TXIKIZKAKOA	EZPEZIALIZATUA	EZ ESPEZIALIZ. (AZAL. ERTAIN ETA HANDIAK.)
2001	III	-0,5	0,2	-1,8
	IV	-1,9	-2,7	0,0
2002	I	3,3	5,4	-0,3
	II	3,2	3,9	1,9
2003	III	9,6	12,0	4,7
	IV	6,5	8,4	3,3
	I	4,2	4,7	3,0
	II	1,8	1,7	1,8
	III	2,7	2,9	2,2

Iturria: EUSTAT

Tradiziozko txikizkako merkataritzaren (espezializatua) salmenta nominalak %3,6 igo dira 2003ko hirugarren hiruhilekoan, 2002ko hirugarren hiruhilekoaren aldean. Igoera nominal hori, prezioen igoeraren eragina kenduta, %2,9koa da, balio errealetan.

Gune ertain eta handietako txikizkako salmentak (ez-espezializatua) %5,7 hazi dira balio nominaletan, aurtengo hirugarren hiruhilekoan. Prezioen igoeraren eragina kendu eta gero, urte arteko tasaren aldakuntza %2,2koa da, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Herrialde Historikoka banatuz gero, hirugarren hiruhileko honetan, Araban izan da txikizkako merkataritzako salmenta nominalen hazkunderik handiena; %6,0eko urte arteko hazkundera izan baita, txikizkako merkataritza espezializatuaren hazkunde handiak eraginda (%6,6). Atzetik Bizkaia du, indize orokorreko %4,4ko aldakuntza positiboarekin eta Gipuzkoak, %3,7ko hazkundera izan du. Balio errealetan, honako hazkundeak izan dira: %4,0koa Araban, %2,8koa Bizkaian, eta %1,9koa Gipuzkoan.

2003ko bigarren hiruhilekoan txikizkako merkataritzaren sektorean ziren landunen aldetik, urte arteko %1,8ko hazkundera izan zen (aurreko urteko hiruhileko beraren aldean) Euskal AEko guztizkorako. Iragan abendutik honera burututako enplegu hazkundera %1,5koa izan da eta Herrialdeka honakoak dira datuak: Gipuzkoan (%2,2), Araban (%1,4) eta Bizkaian, (%1,1).

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tlf:+34-945-01 75 05 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa oharrak Interneten: www.eustat.es